

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Urre gorria

GOGOAREN ETA EMOZIOEN ALDARTEA dantzatzeke gai dira koloreak. Beharbada horregatik kultura ugaritan dute koloreek duten zama moral eta espirituala. Gorriak Europan boterea adierazten zuen. Eta gorrigaia garesti: Mediterraneo ekialdeko kulturen sasoi gorenetan itsas barraskiloa eta Erdi Aroko garai ilunetan abaritzaren kukurrutxa (*Kermes vermilio*). Beste kukurrutxa pare bat ere izan da europarron botere gosearen biktima: *Porphyrophora polonica* poloniarra eta lezkaren *Porphyrophora hameli* armeniarra.

Antzeko zerbait gertatzen zen Ameriketan. Inkek eta aztekek koloreen kodea ere gogoko zuten eta, arraioa! mundu guztia bat, kukurrutxak zituzten gorrigai. Indipikondoaren –*Opuntia ficus-indica*– kukurrutxak 1523an ekarri omen zituzten, dagoenerako, Europara. Laster Espainiarentzako diru iturri garrantzitsu bilakatu zen. Bertan egiten

zirenen aldean merkea, nonbait, eta urrea eta zilarraren ondoren zubi atlantikoa zeharkatzen zuen gai ugariena zen. Pentsa, metal preziatu horien antzera bidaia gerra-ontzietan egin behar zuela agindu zuen Felipe III.ak. Lapurra lapurren beldur. 1559an kukurrutxa amerikar horiek lantzeko gida argitaratu zen, eta 1572an Europa aldera bidaltzen zen kukurrutxa-orearen kalitatea bermatzeko epaitegi berezia sortu zen Mexikon, granapeailea deiturikoaren esku zena. Ondoren Filipinetara, Kanarietara, Espainiara... eraman zituzten landarea eta haren bizkarroia. XIX. mendean armada ingeleseko gudarien jakak bezala, pintatutako ezpainetan barrena zihoan *Cinzano* sonatua, denak gorritzen zituen kukurrutxa hauen odolak. Mende horren erditik atzera asmatutako anilina sintetikoaren industriak laster hondoratu zuen, haatik, kukurrutxagintza.



Hagina

Karaitzezko labanen artean jaio eta bertan bizi behar! Gure larre mendi zabalenak karezkoak dira. Karea uraren eta haizearen eraginez erraz higatzen da, eta higadurak paisaia harrigarriak sortzen ditu. Prozesua Italia, Eslovenia eta Kroazia arteko Karst eskualdean ikertu izan da batik bat, eta horregatik karstiko deitzen zaio paisaje horri.

Argazkiko hagina (*Taxus baccata*) Aralarren bizi da. Beskingo Bordako lagunei egindako

bisita batean topatu nuen. Hagina, artea eta abar ez omen dira azkar hazten, ez berriz ere! Argazkikoa bezalako muturreko tokietan besterik ez diegu bizitzten uzten eta! Hagin honek ere harrapatuko luke erreka bazterren bateko uholdeek ekarritako lur beltz gozoa! Labanak bezalako harkaitz tarte honetan bizitzeko behar dituen jaki eta ur apurrak topatzeko, zainak zenbateraino luzatuta dituen jakin nahi nuke.



8.000.000

Munduko Mahatsaren Elkarreak emandako azken datuen arabera, 2005ean zortzi milioi hektarea lur zen mahats landaketei emaniko azalera. Honela banatzen dira: Ozeanian 0,192 milioi, Europan 4,9, Asian 1,7, Amerikan 0,9 eta Afrikan 0,395. Inoiz ezagututako azalera handiena, hala ere, 1976-80 tartean eman zen: hamar milioitik gora.